



Gaia: Prozedura eteteko Erabakia.

Espedientea: Ekipamendu zientifikoa eskuratzeko 2019ko ekitaldiko laguntzen deialdia (2018ko azaroaren 20ko Agindua. 2018ko abenduaren 5eko EHAA, 234. zk.).

Hezkuntza Saila

*Ekipamendu zientifikoa eskuratzeko 2019ko ekitaldiko laguntzen deialdia egiten duen Hezkuntza sailburuaren 2018ko azaroaren 20ko Agindua dela-eta (2018ko abenduaren 5eko EHAA, 234. zk.) Sail honetan izapidetzen ari den administrazio-prozeduran ebaluazio-txosten bat gehitu behar da; izan ere, txosten horrek arloari buruzko iritzia eman behar du eta prozedurari gehitu behar zaio derrigorrean, eman beharreko ebazpenaren edukiri buruz irizpidea zehazteko, horrelako administrazio-prozedurei aplikatzen zaien araudiak xedatutakoaren arabera.*

Hori dela eta, jakinarazten dugu 2019ko martxoaren 28an eskatu zaiola Ikerketako Estatu Agentziari aipatutako txostena emateko eta bidaltzeko, administrazio-espedienteari gehitzeko.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22. artikuluan xedatutakoaren arabera, prozedura bat ebatzi eta ebazpena jakinarazteko legezko gehieneko epea etenda egongo da, gehienez hiru hilabetez, eskaera egiten denetik derrigorrezko txosten arrazoitua jaso arte.

Horren arabera,

#### ERABAKITZEN DUT

*Ekipamendu zientifikoa eskuratzeko 2019ko ekitaldiko laguntzen deialdia egiten duen 2018ko azaroaren 20ko Agindua dela-eta ((2018ko abenduaren 5eko EHAA, 234. zk.) Sail honetan izapidetzen ari den espedientearen administrazio prozeduraren tramitazioa etetea, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordeak eman beharko duen ebazpenaren edukia zehazteko funtsezkoa izango den derrigorrezko txostena jaso eta espedientera gehitu arte. Txosten hori jasotzeari buruzko informazioa unean-unean emango zaio interesdunari.*

Halaber, jakinarazten dugu erabakitako etetearen epea ezin izango dela inolaz ere hiru hilabetetik gorakoa izan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22. artikuluan xedatutakoaren arabera.



Erabaki hau prozeduran interesatuta dauden guztiei jakinaraziko zaie,  
Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015  
Legearen 40 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko apirilaren 15a.



Amaia ESQUISABEL ALGORZA  
Ikerketako Zuzendaria. *Directoría de Investigación*

HEZKUNTZA SAIA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
*Dirección de Investigación*